



Gizartetxea, laster errealitate berri bat

Agoizko Udalak, joan den azaroan egindako osoko bilkuran, Gizartetxea eraikina barne hartuko duen etxearen obren adjudikazioa onartu zuen aho batez. Construcciones Leache izan da adjudikazioduna, eta laster hasiko da lanekin. Urte hasieran eraikinaren egokitzapenarekin amaituko dela uste da, eta Agoitzek gizarte-intereko baliabide berri bat prest izanen duela.

Gizartetxearen ideia 2016ko urtarrilean sortu zen, Agoizko Udalak etxe honen doako lagapena onura publikoko helburuetara zuzentzeko xedearekin eskatu zuenean. Eraikin honek bi gune sozial bereziak planteatzen ditu. Solairu bat gizarte-justiziaren eremuarekin erlazionaturik dauden jarduerak gauzatzen dituzten eta modu altruistan lan egiten duten gizataldeei zuzenduta dago. Bestetik, eraikinaren beheko solairuan

aurreikusten da jubiloteka kontziliazio zerbitzu bat, arnasa-gelak ere deituak. Behar garrantzitsu bat gure herrian mota honetako baliabiderik ez baitago. Oinarritzko Gizarte Zerbitzuko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzutik Zaharren Egoitzara pasatzen gara, dependentzia espazio hau arretarik gabe utziz.

Gizartetxearen bitartez zenbait helburu lortu nahi dira. Jubilotekarekin pertsona zaintzaileen eta bere kargura mendekotasuna duten adineko pertsonak dituzten familien lan-bizitza eta familia bateragarria egitea nahi da, baita mendekotasun moderatua duten pertsonak bere ingurune propioan zaintzea ere, egoitzarik gabeko konponbide batekin.

Gizarte lokalen eratzearekin emakumeen mobilizazio soziala eta parte hartzea eta presentzia sustatu nahi da, aukera berdintasuna lortzearen mesedetan lan eginez. Elkargune bat dinamizatzea ere aurreikusten da, zabalik gizarte-boluntarioendako.

Proiektu hau Cederna Garalur Elkartearen 2014-2020 aldirako Tokiko Garapen Parte-hartzailearen Estrategiaren (TGPE) bitartez %70eraino finantzatuta dago Nafarroako Mendialdeko zerbitzu publikoak hobetzeko, Nafarroako Landa garapeneko 2014-2020 Programako "LEADER" ekimenaren 19. neurriaren barnean kokatzen da, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak elkarrekin finantzatuta LGENF Landa-garapeneko Funtsen bitartez.



PROYECTO FINANCIADO POR EL FONDOS EUROPEOS DE DESARROLLO REGIONAL Y EL FONDOS FEDERALES

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



LEADER



cederna garalur



Arreta Goiztiarra eskaintzeko hitzarmena

Pasa den ekainean sinatu zen Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioaren eta Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren arteko lankidetzaren hitzarmena, adinez gutxikoei eta familiei Arreta Goiztiarraren zerbitzua eskuratu ahal izateko. Programaren helburua da familien eta haurren gizar-teratze aukera handitzea eta haurren eta haien fami-

lien bizi kalitatea hobetzea, erantzukizun publikoko prestazioa baita, bermatu beharrekoa.

Haurrei eta familiei zuzendutako prebentzio politika horiek lehentasunezkoak dira administrazio guztientzat. Eta, hala, Agoizko udalak zerbitzuaren eskaintza herrian bermatzeko, duela hilabete batzuk haur eskolako zenbait lokal utzi ditu, zerbitzu horretan erabil daitezten.

Urriaren egindako osoko bilkuran programa ikusgarri egitea erabaki zuen udalak, aurretik eskaintzen ari bazen ere, eta horregatik atxiki da Nafarroako Udala eta Kontzejuen federazioak eta Pertsonen autonomia eta garapenerako Nafarroako Agentziak sinatu duten lankidetzaren hitzarmenari.



“Zure pisu hutsa nire etxea izan daiteke”

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialen Lehen-dakariorde eta Kontseilaria Miguel Laparrak “Zure pisu hutsa nire etxea izan daiteke” goiburua duen kanpaina instituzionala aurkeztu zuen berriki, Alokairuen Poltsaren bitartez etxebizitzak erakartzeko xedearekin, babeseko alokairuendako gordetzeko Nasuvinsa enpresa publikoak kudeatuta. Xingle aurre-

ko zenbakian informatu genuen bezala, Agoizko udalbatzak “herriko herritarren etxebizitzarako sarbidea hobetzea” zeregin nagusia duen ekimen honekin bat egin zuen. Hitzarmen honek lau urteko indarraldia dauka, beste lau urtez luzagarria.

Kanpaina hau zehazteko eta ezagutarazteko Etxebizitza Zerbitzuko Zuzendari Javier Etayo hurbildu zen hiribildura, zeinek informazio-hitzaldi jendetsu batean, honen pizgarriak, bermeak eta berrikuntzak zerrendatu zituen.

Alokairu poltsa honetan haien etxebizitza sartzeko interesa duten pertsonak Nasuvinsako bulegoetara joan daitezke haien balorazioa eta inbentarioari ekiteko. Halaber, informazioa jaso dezakete 848 42 06 01 telefono zenbakiaren bitartez edota Nafarroako Gobernuak www.vivienda.navarra.es web-orriaren bitartez.



Musika eta bularreko minbiziaren arteko kidesuna

Urriaren 19an ospatzen da Bularreko Minbiziaren Galarazteko Nazioarteko Eguna. Haren helburua kontzientzia piztea da eta emakumeen artean sustatzea minbiziaren galarazteko kontrolak egin behar direla, diagnostiko goiztiarrak egiteko eta tratamendu egokiak jaso ahal izateko.

Ospakizuna dela eta, pasa den urtean egindako moduan, Agoizko Udalak atxikimendua adierazi nahi izan die gaixotasun hori pairatzen duten emakume guztiei, Musika Eskolako balkoian keinu arrosa bat eginez. Karekin Kulturak dekoratu zuen, paperezko arrosa handi batzuekin.



“Laguntza harremana”, Goizargiren hitzaldia

Sara Pérez Goizargi elkarteko psikologoa gure herrira hurbildu zen “Mirándome puedo mirarte, la relación de ayuda” izeneko hitzaldia ematera.

“Laguntza harremana” ulertzeko ditugun definizioetan oinarrituta, hizlariak adierazi zuen jokamolde aktiboa jartzen dela laguntza es-

katzen duen pertsonengan. Horregatik, ohikoa da pertsona horiek guztiak «bezero», «erabiltzaile» edo, besterik gabe, «pertsona» deitzea, jasailea edo gaixoa deitu beharrean, horrek eskatzaileari rol pasiboa egozten diolako.

Goizargi 2002. urtean sortu zen, maite izan den pertsona bat galdu

ondoren doluan eta bizitza normalizatzen laguntzeko. Horretarako, hainbat ekimen antolatzen ditu, honako balore hauetan oinarritutakoak: gizatasuna, elkar-ulertzea, elkartasuna eta gizarte konpromisoa. Entitateko web-orriari ikus daitezke eskaintzen dituzten aktibitateak eta ekimenak: www.asociaciongoizargi.org.

Iruñean izandako hilketa matxista salatzeke elkarretaratzea

Emakumeen Munduko Martxak Euskal Herriko plataformak eginiko deialdiari erantzunez, Agoizko Udalak elkarretaratze bat antolatu zuen emakume baten hilketa salatzeke. Nafarroako hiriburuko kale Nagusian izan zen gertaera, ustez, haren bikotekideak etxean eragindako sutearen ondorioz.

Agoizko Udalak agerrarazi nahi du guztiz errefusatzeko dituela horrelako egintzak: emakumeari emakume izateagatik bizitza kentzea. Halaber, errefusatu nahi ditu, be-

rriz ere, gure gizartean ematen diren sexu eraso, bortizkeria edo portaera guztiak, eta sexu erasoak ezabatzeko laguntza emateko,

segurtasuna hobetzeko, eta arlo guztietan emakumeen askatasuna bermatzeko konpromisoa berretsi nahi du.



Pentsio duinen aldarrikapena

Estatuko aurrekontu orokorrak onesteak pentsioen 1,6%eko igoera ekarri baldin bazuen ere,

igoera hori ez da nahikoa. Horregatik, pentsiodunek ez dute amorea eman nahi, eta lehian jarraitzen

dute administrazio publikoekin, pentsio duinak exijitzeko eta gutxieneko pentsioak profesioen arteko gutxieneko lansariarekin berdindu arte.



Agoitzen ere gatazka hori bizirik dago, eta Agoizko Erretiratu, Alargun eta Pentsiodunen Plataformak elkarretaratze bat antolatu zuen “Pentsio duin eta publikoen alde” lelopean. Ehun bat lagun elkartziren antolatutako zitan. Ahulen duintasuna lortzearen borroka aurrera jarraitzen du.

H-aritu programako aktibitate berriak

Ikasturtea hastearrekin batera H-aritu plataformak antolatzen dituen tailerrak ere martxan jarri dira. Pasa den urtean eskainitako programazioaren arrakasta dela eta, ikastaro berri batzuk antolatu dira.

Lehenengoetako bat, "Ninientzako musika" izeneko, urriko eta azaroko lau larunbatetan zehar egin

da. Musikaren estimulazio goiztiarra bilatzen du, musikaren bitartez gorputza eta ahotsa ezagutzen laguntzeaz gain. Niniekiko komunikazio afektiboa handitzen du, gainera, eta zenbait gaitasun garatzen ditu: adierazpenekin, musikarekin, berunarekin eta gaitasun nagusiekin lotutakoak, besteak beste.

Eloko Teilerian 106 pertsona fusilatuei omenaldia

Eloko Teilerian Ahaztuak elkarteak antolatuta joan den urriaren 20an 1936an kolpistek eraildako 106 pertsonen omenaldi bat egin zitzaien herri honetako pilotalekuan, Nafarroako hoberik handiengan, Eloko Teilerian, lurperatu zituztenak. Agoizko hamabi pertsona daude zerrenda makabro honetan.

Ekitaldiak Nafarroako Gobernua-ren elkartasuna eta presentzia izan zuten, fusilatuek zetozen herrietako udal ordezkariak gain, haien artean Unai Lako. Ekitaldian zehar "egia, justizia eta ordaina" eskatu zen kolpe militarren ondorengo biktima guztiendako eta haien memoriarendako leku duin bat exijitu zuten eta Teilerian ahaztuak gogoraraziko dituen monolito bat. Memoria Poetica kolektiboak

zurraraz blaitu zuen ekitaldia "lurretik ateratzen diren ahotsekin, errepublikar maisu-maistrenak, emakume kaskamotzenak, eta haien ideiegatik fusilatutako alkateenak" zenbait bertso-lerroren bitartez. Jose Ramon Urtasunek egindako murala, hobi honetan eraildakoen izen eta herriekin kartela eta krabelin batzuk kontaketa pertsonal gogorren eta elkarteak instituzio desberdinetan eskatzen dituen aldarrikapenen lekukoak izan ziren. Teilerian Ahaztuak elkarteak idazkaria Ana Hernandezek ozen eta argi salatu zuen lehen oztipoa bere herrian dutela, herria gobernatzeko duen taldeak eta haren alkateak, ez inplikatzeko gain, kolektibo memorialista honen lana gogor kritikatzeko baitute.



Erabateko atxikimendua, euskararen ofizialtasunaren alde

Agoizko Udalak atxikimendua adierazi zion Nafarroa osoan euskara ofiziala izan dadin aldarrikatzeko duela gutxi antolatutako manifestaziori. Martxak *Behingoz euskara ofiziala Nafarroa osoan* zuen lema, eta jendetza bildu zuen.

Ekimenari atxikitako entitateak uste dute "hizkuntza eskubideak oinarritzeko eskubideak direla, baina indarrean dagoen Euskararen Legeak oztipoak jartzen dizkie

euskaldun hiztunei, izan ere, ez die Nafarroako lurralde osoan aitor-tzen euskaraz bizitzeko duten eskubidea. Gainera, ez du garapena

laguntzen, ez da lege dinamikoa eta ez da eguneratzen joan, gizar-tea euskaldundu ahala. Anakronismoa da».



Irati HHS Mankomunitateak antolatutako Argazki Lehiaketaren ebatzia

Irati HHS Mankomunitateak ebatzi zuen urtero antolatzen duen (aurten hirugarren edizio izan da) argazki lehiaketa. Saria jasotzeko aurkeztutako lanek oinarrietan adierazitako 4 RRRR bete behar zituzten: Repensar (birpentsatu), Reutilizar (berrerabili), Reducir (gutxitu) eta Reciclar (birziklatu), Mankomunitatekoak diren udallerrietako edozeinetan. Aurtengo irabazlea Alfredo León Mañú izan da, eta 300 euro jasoko ditu «De la tierra a la tierra» argazkiarengatik, zeinetan Agoizko baratzetan ikusi ahal dugun egoera arrunt bat erakusten baituen. Aurki, Mankomunitateak lehiaketara aurkeztutako zenbait argazki jasotzen dituen egutegi bat banatuko da etxe guztietara.



Egilea: Alfredo León Mañú / Izenburua: De la tierra a la tierra

Txakurren eta gainontzeko animalien ordenantzaz

Lerro hauetatik gogorazi nahi dugu Agoitzen animaliak edukitzeko ordenantza bat dagoela, egon behar diren baldintzak zehazten dituen eta auzotarren eta maskoten artean elkarrekin bizitzeko modua arautzen duena.

Animaliek ezin izanen dute ohiko bizileku bezala ez balkoirik ezta argirik gabeko edo aireztapen gabeko edo haien tamainarako txikiak diren gelarik eduki. Baimendutako gehienezko animalien

kopurua etxebizitza batean mugar-tua izan daiteke auzotarrei eragozpenak saihesteko.

Erabat debekatuta dago kalean animaliei jaten ematea, bereziki katuei eta usoei.

Txakurrek, bide publikoan egoten direnean, lepokoan eraman beharko dute beti eta bere jabeak kontrolatzen utziko dion uhal batekin lotuta. Arraza arriskutsukoa izan daitezkeen txakurrek edo oldarkorrek

konsideratuak direnek muturrekoa eraman beharko dute.

Azkenik, txakurren kakak bide publikoan uzteko debekua seinatzen du. Jasotzea haien jabeen ardura da.

Udaletik txakurren jabeak konpromisoa eskatzen diegu berriz, guztion arteko ulermen ona bateragarria eta posiblea delako oinarritzeko arau hauek errespetatzen baditugu.

Hondakinen biltegi desegokia

Azkenaldian, eta Agoizko paisaiako parte balira bezala, modu desegokian eta ordenarik gabe utzirik ikusi dira tamaina handiko hondakinak zein gainerakoak puntu desberdinetan.

HHS Irati Mankomunitateak edukiontzia desberdinak zuzen erabiltzeko garrantziaz ohartarazten gaituzte, baita puntu garbiaz ere, gogoraziz astero erabil dezakegula ostegunetako azoka txikian. Tamaina handiko hondakinez Emauseko Traperok arduratzen dira, hilean hirutan herrira hurbiltzen direnak etxez etxe baztertu nahi dugun hori jasotzeko. Aldez aurretik 948 33 62 17 telefonora hots egin behar da hitzordua zehazteko.



Igerileku estalien ordutegia

Kanpondoak, zerbitzua hobetzeko asmoz, kontsulta bat egin die abonua egina duten guztiei. Galdetegia-ren helburua zen igerileku estaliak ireki eta itxeko ordutegia bezeroek erabakitzeko aukera ematea eta haien beharrei egokitzea.

Bi aukera eskaini ziren: oraingo ordutegia mantentzea edo ordutegi jarraitua programatzea, 12:00-20:00 bitartean (asteburuan 10:00-14:00 artean litzateke). Kontsulta bukatuta, zeinetan 82 kide hartu baituten parte, 68 botoekin erabaki dute orain arte izan den ordutegi berarekin jarraitzea, eta 13k ordutegi berriaren alde egin zuten. Pertsona baten botoa zuria izan zen.

Horrenbestez, igerileku estaliaren irekiera eta itxiera ordutegia orain arteko bera izanen da.



III Agoizko Mendi Lasterketa

Joan den urriaren 13an III Agoizko Mendi Lasterketa egin zen. Ekitaldiaren antolakuntzak ia urte batez egin duen lanari esker, baita boluntario zerrenda zabal bati esker ere, dena prest zegoen larunbata goizean kirol egun batez gozatzeko gure Agoizko mendi maitetarik.



Ingeles puntualtasun batez goizeko bederatzietan hasiera eman zitzaion lasterketari ibilbide luzetik (22 km. eta 1.200 metro baino gehiagoko desnibelarekin), 96 kementsu ausartu ziren lasterketa egitera. Ordu bat beranduago ibilbide motzari hasiera ematen zion suziria bota zen (hau 13 km eta 630 metroko desnibelarekin). Ibilbide honetan 90 korrikalari irten ziren eta agoiztarren parte-hartze handiago batez gozatu ahal izan genuen.

Hirugarren edizio honek, aurreko urteetan ospatutakoak bezalaxe, arrakasta handi bat izan du kirol mailan zein antolaketan. Azpimarratu eta eskertu nahi diegu dena prest egon dadin kolaboratzen duten pertsona eta enpresa mordoari eta lasterketa egutegi estu batean ekitaldi honek indarra har dezan. Zorionak!

Jito Alai Agoitzen

Pasa den urriaren 14an, Kultur Etxeak jendez lepo "JITO ALAI" ikuskizuna jaso zuen. Bohemia doinuak. Lurrak dantzatzeko du, 2018ko ikuskizun onenari GAIARRE SARIA. Duela urte batzuk bere dultzainarekin festetan bisitatzen gintuen Josetxo Goia-Arribenafar saxofoi-jotzailearen jatorrizko musika eta ideia izanik, Jose Antimasberes "El Castañuelasi" omenaldi bezala asmatu zuen ikuskizuna da. Honetan Karekin Kultura kultur eta emozio-kudeaketako agoiztar enpresak kolaboratu du.

Jose, bere kriskitinak, bere kasetea eta bere kiribilak oso ezagunak izan ziren gure kaleetan, beste herri nafar askotan bezalaxe. Udalak Candy eta Esmeralda bere agoiztar familiari opari bat eskaini zien, eta audi-

torioa betetzen zuten ikusle guztiek bizitza nomada eraman zuten eta artista honen historiaz gozatu egin zuten dantzari eta musikari handien bitartez egindako emanaldiarekin.



Orreaga Fundazioak Nafarroako Elkartearen Eguna ospatu zuen Agoitzen

Joan den urriaren 6an eta Angiluerreka elkartearen eskutik, Orreaga Fundazioak Nafarroako Elkartearen Eguneko jai-eguna antolatu zuen Agoitzen.

Merkatuko plaza gosari jendetsu baten eszenatokia izan zen ohiko artisau-azokaren parean. Bertako trikitilari eta txistulari taldeek, erraldoi eta kilikien konpartsak, gaita-jotzaileek eta joaldunek kalejira alai batean parte hartu zuten, eguneko ekitaldi nagusiaren aurretik.



Jarraian hainbat herritar bildu zuen ohiko kantuzek, herriko kaleetan zehar zenbait kanta interpretatuz. Arratsaldean eta herri-bazkari baten ondoren, herrikiroleko zenbait proba gauzatu ziren Agoitz eta Berriozarko taldeen parte hartzearekin.

Ospakizunekin bukatzeko, Aztekak kontzertua eskaini zuen. Gainera, gonbitea luzatu zitzaion, bertaratutakoiei, datorren urtean ospatuko den edizioan ere parte har dezaten.



Kultur balantzea

Kultur Etxean «Historias de Aoiz-Agoizko Historioak» erakusketari Kristina Cosínek hartu zion erreleboa "Urari Begira" izeneko erakusketarekin, Itoiz bailararengatik bere begirada eta sentimendua erakutsiz. Zenbait formatu eta teknika agoiztar artistaren begirada pertsonala jasotzeko.



"Lehenago eta oraingo euskal kantuak" melodiak San Miguel abesbatzak interpretaturik, eta Aritz Ugaldek pianoan lagundurik, lepo bete zuten auditorioa musika hitzordu berri batean. Halaber, Bilaketak bere ohizko kafe-kontzertuak eskaini zituen hilaren azken bi igandeetan.

"Agoizko Zubiaren Lagunak" Elkarteak ikasleak deitu zituen berriro "Agoizko Zubia" aire libreko pintura lehiaketan parte hartzera. Oraingo honetan Iruñeko

Maristas ikastetxeko 6. mailako ikasleak hurbildu ziren herrira.

Irati antzerki taldeak "ez dago sarrerarik" kartela zintzilikatu zuen berriz ere Humberto Robles eta Juan Riosen "Nosotras" lan dibertigarriaren emanaldi banatan.

Hilabetea amaitzeko, Ventura Ruizek "Sagu mada-rikatuak" ipuinarekin, haurrak bildu zituen liburutegian euskarazko ipuin kontakizunean. Eta Sara Perez Goizargi Elkarteko psikologoak "Ni begiratzeko begira zaitzakete" izenburua zuen hitzaldi interesgarri batean gure bizitzako une zailetan pertsonen arteko laguntza harremana azaldu zuen.

